

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

### 5129

*EBAZPENA, 2021eko irailaren 15ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2021. urtean langile autonomoen artean Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko prestakuntza sustatzeko dirulaguntzak ematea ebazten duena.*

#### EGITATEAK

1.– 2021eko ekainaren 24an, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko ekainaren 2ko Ebazpena argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Ebazpen horren bidez, langile autonomoen artean laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza sustatzeko 2021eko dirulaguntzen deialdia egin zen.

2.– Eskabideak aurkezteko epea 2021eko uztailaren 25ean amaitu zen.

3.– Aipatutako ebazpenaren 12. artikuluan jasotako balorazio-batzordeak ebaluatu zituen eskabideak, deialdian ezarritako irizpide eta haztapenen arabera, eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari jakinarazi zion bere proposamena, ebazpena eman zezan.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko ekainaren 2ko Ebazpenaren 14. artikulua dioenez, eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzeko den uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuak emandako eskumenekin bat etorriz, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpen bidez emango edo ukatuko ditu eskatutako dirulaguntzak.

Horiek horrela, balorazio-batzordearen proposamena ikusirik, hauxe,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako eranskinean azaltzen diren eskabideei dirulaguntza ematea, prestakuntza-jarduerak egiteko.

Bigarrena.– Ebazpen honetako eranskinean azaltzen den eskabideari dirulaguntza ukatzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, zeinak amaiera ematen baitio administrazio-bideari, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoarekin bat etorriz. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, EAeko Auzitegi Nagusiko Admi-

2021eko urriaren 7a, osteguna

nistrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena espresuki jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa aratzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoa betez.

Barakaldo, 2021eko irailaren 15a.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,  
MARÍA LOURDES ISCAR REINA.

2021eko urriaren 7a, osteguna

## ERANSKINA

## ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Entitatea	Prestakuntza-jarduera	Dirulaguntza (euro)
Barakaldoren Garapen Integralerako-Inguralde	Curso Básico de Prevención de Riesgos Laborales	3.000
Lanbide Heziketaren Lagunak-LHL	Oinarrizko Lan Prebentzio Arriskuen Ikastaroko formakuntza / Prevención de Riesgos Laborales	2.550

## UKATUTAKO ESKABIDEA

Entitatea	Prestakuntza-jarduera	Arrazoia
Lanbide Heziketaren Lagunak-LHL	Orga jasotzaileen erabilpeneko ziurtagiria / Manejo de carretillas elevadoras	Prestakuntza-jarduerak ez ditu betetzen Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko ekainaren 2ko Ebazpenaren 8. artikuluan ezarritako oinarriak, zeinetan arautzen baita langile autonomoen artean laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza sustatzeko dirulaguntzetarako deialdia 2021. urtean, ez baitu garatzen ez nahitaezko gai-zerrenda, ez eskatutako eskola-orduen kopurua.